

**2020. urteko diru-laguntzen deialdia**

**Eremua: GAZTERIA**

**Diru-laguntzen lerroa: ume, nerabe eta gazteentzako programei eta jardueri laguntzea**

## **1. artikulua. Esparrua eta xedea**

1.1. Gazteria eta Kirol Sailak, Gazteria Arloaren barruan, "*Ume, nerabe eta gazteei zuzendutako programak eta jarduerak sustatzea*" izenburupeko dirulaguntza-ildoaren bitartez, dirulaguntzak emateko deialdia egin du. Honekin, hezkuntza arloan ume eta nerabeei zuzendutako programak bultzatu eta zabaldu nahi dira, astialdia eta aisialdia sustatzeko asmoz. Horrez gain, Bilbao Gazte Prozesuaren barruan, gazte-ekimenak bultzatzera zuzendutako programak sustatzeko asmoa dago, berrikuntzari, sormenari eta Bilboren garapenean gazteek parte hartzeari lotuta.

<http://bilbaogazte.bilbao.eus/es/proceso-bilbao-gazte/>

1.2. Gauzak horrela, hona hemen deialdiaren helburuak:

- Gizabanako gisa ume eta nerabeen hazkundera eta berdinen arteko harremanak bultzatzeko jarduerak sustatzea, gaitasun pertsonal eta sozialak garatzearen bitartez.
- Sormena, ekimena eta ekintzailatza bultzatzea eta gizarte- eta kultura-programazioan ume zein nerabeen parte-hartzea nahiz inplikazioa sustatzea. Hala, Bilbo garatzeko beraiek izango dira protagonista nagusiak eta haien esku egongo da horretarako ekimena.
- Gazteria arloko udal politiketan gazteen parte-hartzea sustatzea (Bilbao Gazte Prozesua). <http://bilbaogazte.bilbao.eus/es/proceso-bilbao-gazte/>
- Nerabeen osasun fisiko eta mentala sustatzea. Horren barruan, arriskuko jokabideen prebentzioa eta ohitura osasungarrien sustapena daude.
- Adingabeko eta gazteen bizitzaren arlo guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, beraien kultura-identitatea osatzen duen elementu gisa.
- Txiki-txikitatik, balioetan oinarritutako heziketa (aniztasuna errespetatzea, genero-berdintasuna...), bizikidetzeta, belaunaldi arteko harremanak eta herritartasun aktiboa sustatzea.

1.3. Honako helburuak ez dagozkio deialdi honi:

- Beste udal sailek zein erakundeek edo bestelako herri-erakundeek egindako deialdien helburu zehatzei erantzuten dieten proiektuak: besteak beste, astialdiko ikastetxeetan egindako prestakuntzako ikastaroak; Bilboren barruko eta Bilbotik kanpoko udalekuak eta egonaldiak antolatzea eta garatzea; gazte-informazioa emateko bulegoen mantentzea eta arreta; prestakuntza-programak; ikasketak; edo argitalpenak.
- Azpiegiturari emandako laguntza; erakundearen lokalen mantentzea; eta erakundearen berri emateko tresnak.
- Haien eragin-eremuan edo erreferentzian, Bilbo eta bilbotarrak barne hartzen ez dituzten proiektuak.

Gainera, ez dira diruz lagungarriak izango hurrengo eragile hauek aurkeztutako eskabideak:

- Ikastetxeak; guraso-elkarte eta erakundeak; eta arlo akademikoan zein eskolaz kanpokoan proiektuak burutzen dituzten beste guztiak.
- Auzo Elkarteak.

## **2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia**

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

## **3. artikulua. Erakunde onuradunak**

### **3.1.**

- Diruz lagundu daitekeen 1. atala: Hezkuntza arloko aisiako eta astialdiko programa eta jarduerak (hezkuntza ez-formala), ume eta nerabeei zuzendutakoak (**3-17 urte**), aisia aktibo eta positiboa, ekimena eta sormena nahiz ohitura osasungarriak sustatzen dituztenak (6.1 puntuan jasota); eta ume zein nerabeentzako hezkuntza arloko programak edo/eta jarduera ez-formalak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak.
- Diruz lagundu daitekeen 2. atala: Gazteei (**18-30 urte**) zuzendutako proiektuak "Bilbao Gazte" prozesuaren barruan (6.2 artikuluan jasota); eta gazteei zuzendutako Proiektuak garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko gazte-erakundeak.

**3.2.** Erakunde eskatzaileek, eskariak aurkezteko epea amaitzen denean, Bilboko Herritarren Partaidetzako Erakundearen Udal Erregistroan erregistratuta egon behar dute eta erregistroko datuak eguneratuta eduki behar dituzte (Erregistroa Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Sailean dago: Venezuela plaza 2, 4. solairua) (2020ko otsailaren 17a).

Salbuespenez, erakundearen egoitza Bilbon ez daukaten irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta, hortaz, udal erregistro horretan ez daudenek, jarduera puntualak Bilbon

egin nahi badituzte, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan izena nahitaez ematea eskatuko zaie.

3.3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte entitate eskatzaileek eskaera aurkezten den unean, dirulaguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

#### **4. artikulua. Aurrekontu-kredituak**

4.1. Deitutako dirulaguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu-kodearen (2020/00173) eta 2020 ekitaldirako onartutako gastu-proiektuaren kontura finantzatuko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 30.000€ da.

4.2. Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

#### **5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura**

5.1. Diruz laguntzeko kontzeptuari (**aplikatzeko erregimena/erregimenak**) (**norgehiagoka eta hainbanaketa**) (**izan daiteke/izan daitezke**):

(-) Norgehiagoka-erregimenean, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskariak alderatzen dira, lehentasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

5.2. Norgehiagoka sistema erabiltzen den kasuetan, behin gutxieneko atalaserara helduta (50 puntu), emateko diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren araberrako portzentaje bat aplikatuz, taula honi jarraikiz:

<b>Programari emandako puntuak</b>	<b>Emateko diru-laguntzaren %</b>
80 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
70-80 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 80
70 puntu baino gutxiago	Eskatutako zenbatekoaren % 70

#### **6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak**

**Diruz lagundu daitekeen 1. atala:** Hezkuntza arloko aisiako eta astialdiko programa eta jarduerak (hezkuntza ez-formala), ume eta nerabeei zuzendutakoak (**3-17 urte**),

aisia aktibo eta positiboa, ekimena eta sormena nahiz ohitura osasungarriak sustatzen dituztenak.

*Gehienezko diru-kopurua, programako* ..... 1.000€  
*Gutxieneko puntuak* ..... 50 puntu  
*Gehienez aurkez daitezkeen programak* .....elkarte bakoitzeko 1

**Diruz lagundu daitezkeen 2. atala:** "Bilbao Gazte" prozesuaren barruan burutzen diren eta gazteei zuzenduta (**18-30 urte**) dauden proiektuak.

Bilbao Gazte prozesuan aurreikusitako beste helburu batzuen artean, hurrengo ezaugarriak dituzten proiektuak:

<http://bilbaogazte.bilbao.eus/es/proceso-bilbao-gazte/>

- gazteen autonomia eta burujabetzeko aukerak sustatzen dituztenak.
- Ekimena, berrikuntza eta sormena sustatzen dituztenak.
- Elkartasuna, konpromisoa, berdintasuna eta aniztasuna indartzen dituztenak.
- Gazteen eta gazte-elkarteen arteko sareko lana dakartenak.
- Udal arloko politiken garapenean gazteen parte-hartzea sustatzen dutenak.
- Garapen Iraunkorrari lotutako Helburuak bultzatzen dituztenak.
- Bilbao Balioen Hiria ekimenaren barruan Bilboren balioak zabaltzen dituztenak.

*Gehienezko diru-kopurua, programako*..... 1.000€  
*Gutxieneko puntuak* ..... 30 puntu  
*Gehienez aurkez daitezkeen programak*.....elkarte bakoitzeko 1

## **7. artikulua.- Eskabideak**

---

### **7.1. Aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2020ko otsailaren 17an amaituko da.

### **7.2. Informazioa eta dokumentazioa.**

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)).
- Bilboko Udalaren garedentasun-atarian ([www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio)).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

### 7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen arabera.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

**7.4.** Erakundearen legezko ordezkari edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

**7.5.** Diru-laguntza eskariak ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

**7.6.** Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

**7.7.** Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkiete erakunde eskatzaileei.

**7.8.** Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

**7.9.** Elkarte eskatzaile bakoitzak programa edo proiektu bakarra aurkeztu dezake diru-laguntzaren arlo honetarako.

## **8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

**8.1.** Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da
- "GAZTERIA" deritzon dokumentua.

- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.2.** Eskaria **udal erregistroan** aurkezten bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera. Urtekoetan xehatutako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "GAZTERIA" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.3.** Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

**8.4.** Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

**8.5.** Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erakundearen Erregistroan ez dauden erakundeek, gainera, dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- Dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Erakundearen estatutuen fotokopia.

**8.6.** Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak ez zuzenduz gero eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

## **9. artikulua. Balorazio-irizpideak**

---

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

**A) Programa baloratzeko irizpideak ..... GUZTIRA 80 puntu**

a) Programaren interesa. .... Gehienez 45 puntu.  
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Udal Sailen ildo estrategiko, helburu eta irizpideekin bat etortzea; partaide-kopurua; aurreikusitako eragina; berrikuntza eta teknologia berrien erabilera; eremu geografikoa; programaren iraupena; kolektibo hartzailea; programaren egonkortzea (aurrez landutako programen kasuan); beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea; jarduera non gauzatzen den.

b) Programaren diseinuaren kalitatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Honako hauek sartzea: zer emaitza lortzea espero den, programa zenbateraino bete den jakiteko eta ebaluatzeako adierazleak, kanpo-komunikazioa, barne-komunikazioa, justifikazioa (programa gauzatzeko arrazoiak).

c) Aurrekontua egokia izatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Finantza-ahalegina (beste finantziazio-iturri batzuk bilatzea), baliabideak modu eraginkorrean egokitzea, eta programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa.

d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna..... Gehienez 15 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Elebidunentzako euskarazko jarduerak antolatzea, programak gazteen partaidetza integratzea, programan genero-ikuspegia kontuan hartzea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea, jardueren memoria sexuaren arabera banakatzea, jarduerak udalerriko kultura-aniztasuna aintzat hartzea, programa etorkinen elkarteetan eta/edo etorkinei laguntzeko elkarteetan zabaltzea, proiektuak multzo edo kolektibo desberdinen arteko harremanak lantzea, proiektuak atzeritarrek parte hartzea errazteko ekintza bereziak edo moldaketak edukitzea, programak pertsona guztientzako eskuragarritasuna ziurtatzeko neurriak izatea.

**B) Erakunde eskatzailearen balorazioa.....GUZTIRA 20 puntu**

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Esperientzia egiaztatua, programa lantzeko gaitasuna, egitura partizipatibo eta bidezkoa, koordinakundeetan parte hartzea, bazkideek prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea, bazkide-kopurua, egoitzaren irisgarritasuna.

## **10. artikulua. Izapideak eta balorazioa**

**10.1.** Prozeduraren izapideak egiteko eskumena **GAZTERIA ETA KIROL SAILE**eko **ZUZENDARITZ**ari atxikitako langileek izango dute.

**10.2.** Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak hauek izango dira:

Presidentea: **GAZTERIA ETA KIROL SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA**

Idazkaria: **IDAZKARITZA TEKNIKOAREN NEGOZIATUA**

Kideak: **GAZTERIA ETA KIROL SAILEKO ZUZENDARIA**

**UME ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMEN SAILATALA**

**UMEEN GAIETARAKO NEGOZIATUA**

**GAZTERIA ATALBURUTZA.**

**10.3.** Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

**10.4.** Instrukzio-organoak, espediente eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

## **11. artikulua. Berriz antolatzea**

---

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

## **12. artikulua. Ebazpena**

---

**12.1.** Prozedura ebaztea Gobernu Batzarrari dagokio.

**12.2.** Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

**12.3.** Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

## **13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea**

---

**13.1.** Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

**13.2.** Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

**13.3.** Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

## **14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea**

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzte kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan.

Erakunde onuradunek jasotzen dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

## **15. artikulua. Azpikontratazioa**

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. Artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

## **16. artikulua. Programa aldatzea**

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzarrak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handizat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoak aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzarrak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

## **17. artikulua. Uko egitea**

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaiokete Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

## **18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea**

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

## **19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea**

### **19.1. Justifikatzeko epea**

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

### **19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa**

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

### 19.3. Justifikatzeko sistema

**19.3.1. Norgehiagokan eta puntuen araberako hainbanaketan,** diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin.
- b) Programaren egikaritzeari dagokion gastu eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera egina.
- c) Programa egikaritzeko gastuen fakturen zerrenda, emandako ereduaren arabera egina.
- d) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:
  - Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagirik, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaportea). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztagiria ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagirik aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzaten den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

- f) Diruz laguntzeko moduko kontzeptu baten zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruz indarrean dauden legeetan kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa bada (zerbitzuak eta horniketak 15.000 euro gehi BEZ,

obrak 40.000 euro gehi BEZ), erakunde onuradunak, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu behar ditu, gutxienez.

Eskaintza horietako bat aukeratzeko, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak aplikatu behar dira. Alde horretatik, eskaintzak justifikazioan edo, hala badagokie, diru-laguntza jasotzeko eskarian aurkeztu behar dira, eta, proposamen ekonomiko onena aukeratzeko ez bada, memorian berariaz justifikatu behar da.

#### **19.4. Justifikaziorik ez edo justifikazio nahikorik ez.**

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14. artikuluan aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

### **20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea**

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.